# Antxiñako fotografixia



# Mutikuen lehenengo komuniua 1950ian

Akordau orduko pasaitten dala denporia, gero e! Berrogeta hamabost urte dira ume honeik euren **lehenengo komuniua** egin euela. Orain lako fiesta barik, jakiña, hareik garai latzak ziran-eta; baiña orduan be saiaketan ziran gurasuak euren seme-alabak apain-apain gertaketan egun horretarako: mutikuak mariñero jantzitta batzuk, traje dotoriekin beste batzuk, eta danak kurtze, lazo eta guante zurixakin; neskatillak, ostera, zuriz, nobixen pare, edo bestela soiñeko eta jertse elegantiekin. Gaurko honetan **Leonardo Zabaleta** abade katekista oñatiarraren inguruan agerketan diranak mutikuak dittugu. Hona euron izenak eta jatorrixak goittik behera eta ezkerretik eskumara:

Goixeneko illaran: Felix Mari **Madina**, Atzeko kaleko zesterixakua; Jose Enrike **Arana**, Kale Zaharreko Porrunekua; Karlos **Agirrebengoa**, Kale Barriko alpargateruenekua; X. X., Miranda aldekua-edo ei zan, baiña oso denpora gutxi egin eben Oñatin; Juan Mari **Murguzur**, Arotzenekua (Olabarrieta); Pako **Arriaran**, Kale Barriko Txarraskuenekua; Juan Mari **Mugartza**, Kale Barriko Mugartzanekua; Karlos **Moiua**, oñatiarra jatorriz, baiña laister Beasainera fan zana; Joxe **Arregi**, San Antue kaleko Sindikatukua; Bixente **Txintxurreta**, Lekunbarriko Mardonekua; Joxe Mari **Altzelai**, Aiastuikua (Olabarrieta); Joxe Mari **Kortabarria**, Eiziar Goikua (Murgixa); Lorentxo **Elkoroiribe**, Billar Goittikua (Olabarrieta); Migel Anjel **Ugarte**, Kale Barrikua, mutikotan Panplonara aldetakua; Enrike **Guridi**, Urubilgua (Larraña); Iñaxio **Urzelai**, Elorduikua (Larraña).

Erdiko illaran: Pedro **Urzelai**, Uriko Garaikua (Larraña); Iñaxio **Elortza**, Garibarrengua (Garibai); Iñaxio **Elortza**, Kale Zaharrekua; Joxe Luis **Etxeberria**, Urtiaga Azpikokua (Santxolopeztegi); Joxe **Arregi**, Meltxiorrena (Olabarrieta); Iñaxio **Zubia**, Zelabarrengua (Olabarrieta); Joxe Mari **Kortabarria**, San Juan kaleko Gororduenekua; Bixente **Madina**, Zulatzakua (Olabarrieta); Joxe Luis **Mugartza**, Kale Zaharreko Xelaanekua; Jesus Mari **Igartua**, Kale Zaharrekua; Migel Anjel **Gutierrez**, Kale Zaharreko Luxarrenekua; Juanito **Altube**, Benturenekua (Garagaltza); Migel **Azpiazu**, Kasablankakua (Goribar); Jose Luis **García**, Burgosen jaixua, Oñatin Tetuanen bizi zana, eta gerotxuago Mondraguera fandakua.

Beheko illaran jarritta: Bixente **Inza**, Azkarraga Erdikua (Uribarri); Joxe Mari **Galdos**, Kurpidekua (Garagaltza); Anjel Mari **Zubia**, Antzokua (Goribar); Fernando **Letamendi**, Tetuangua; Joxe Luis **Azkargorta**, Iruatz Garaikua (Garagaltza); Jabier **Ugarte**, Jaumendikua (Lezesarri), Tomas **Letamendi**, San Estebangua (Lezesarri); Sebastian **Letamendi**, Portalekukua; Felix **Ibarrondo**, Plazakua; Jose Iñazio **Baltzategi**, Kale Barrikua; Bittoriano **Madina**, Arantzazu kaleko Txoriñekua; Iñaxio **Guridi**, Zumeltzegi Torrekua; Kandido **Ugarte**, San Martinpekua; Jesus Mari **Guridi**, Kale Zaharrekua; eta Bixente **Kortabarria**, Eiziar Goikua (Murgixa).

**J. E.**

Argazkixa orain Berrobin bizi dan Bittoriano Madinaren bittartez aillegau xaku. Informaziñua, berriz, Bittorianok ez ezik, Fernado Letamendi eta bere kuadrillakuak, Bixente Madinak eta Rakel Urrutxik be osotu doskue. Milla esker danoi!